

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAMAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Zuhaizti enkantea

Arabako Foru Aldundiaren ezinbesteko baimenez, Lezamako Administrazio Batzarrak ondorengo baso aprobetxamenduaren enkante publikoa (gutun azal itxi bidezkoa) egingo du:

1. lotea: onura publikoko 71 mendian, Berganzagoiti-Añarbe (3/358C) dermioan, baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinutan: 125 zuhaitz, materialetarako; 117.694 m³ eta 17,23 estereo enborki. Zenbatespena: 4.960,38 euro (BEZa aparte).

1. A lotea: onura publikoko 66 mendian, Zulueta (5/144) dermioan, baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinutan: 69 zuhaitz, materialetarako; 116.508 m³ eta 6,091 estereo enborki. Zenbatespena: 5.242,86 euro (BEZa aparte).

1. B lotea: onura publikoko 66 mendian, Zulueta (5/225) dermioan, baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinutan: 354 zuhaitz, materialetarako; 862.199 m³ eta 32,182 estereo enborki. Zenbatespena: 40.523,33 euro (BEZa aparte).

1. C lotea: onura publikoko 66 mendian, Zulueta (5/229) dermioan, baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinutan: 87 zuhaitz, materialetarako; 303.624 m³ eta 7,909 estereo enborki. Zenbatespena: 14.270,31 euro (BEZa aparte).

2. lotea: onura publikoko 66 mendian, Ajanza (5/219-213) dermioan, baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinutan: 362 zuhaitz, materialetarako; 893.055 m³ eta 32,909 estereo enborki. Zenbatespena: 41.973,61 euro (BEZa aparte).

3. lotea: onura publikoko 66 mendian, Miskiñaran (5/224) dermioan, baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinutan: 151 zuhaitz, materialetarako; 437.796 m³ eta 13,727 estereo enborki. Zenbatespena: 20.576,40 euro (BEZa aparte).

1. Lizitazio oinarria.

Baterakoa, lote bakarrean, 127.546,89 euroko zenbatekoarekin (BEZa aparte).

2. Fidantza

Enkantean parte hartzeko, Administrazio Batzarraren diru kutxan ehuneko 5eko fidantza sartu izanaren frogagiria nahitaezkoa da. Halaber, enpresaren erantzukizun agiria aurkeztu beharko da.

3. Ordaintzeko modua

Ehuneko 50 behin betiko esleitzean, eta gainerako ehuneko 50 zuhaitzak botatzeari ekin baino lehen.

4. Eskaintzak aurkeztea

Eskaintzak gutun azal itxi batean aurkeztuko dira lehendakariaren egoitzan (Padura auzoa, 12). Horretarako 22 egun izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Azken egunean 12:00ak arte aurkeztu ahal izango dira eskaintzak.

5. Gutun azalak irekitzea

Eskaintzak aurkezteko 22 egunak igaro ondorengo lehen igandean irekiko dira, kontzejuaren aretoan, 12:00etan.

6. Aprobetxamenduaren epea

Aprobetxamendua 2018ko urriaren 31n amaituko da, eta kasu guztietan botako den lehen lotea 2 zenbakia duena izango da.

11/2007 Foru Arauak eta Foru Aldundiak baimendutako baldintza teknikoen agiriek arautuko dituzte aprobetxamenduaren alderdi guztiak.

Era berean, aprobetxamenduak bukatu ondoren, basoetara iristeko pista eta bide guztiak hasieran zeuden moduan utzi beharko dira.

Lezama, 2018ko maiatzaren 27a

Lehendakaria

JAVIER ZUBIZARRETA UGARTE